

# Hamazazpi

2016ko negua



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala



**IBILBIDE BIOLOGIKOAK**

**OKETA ALAI DANTZA TALDEA**

**I BERDINTASUN JARDUNALDIEN BALANTZEA**

**'IRATZE KARGAMENTUAN KAMUFLATUTAKO TXERRIA'**

**ODOL EMAILEEN UNITATE MUGIKORRA, BENGOLARRAN**

**UNAI LOBORI, BETAGARRIKO ETA MISS PALENCIAKO MUSIKARIARI, ELKARRIZKETA**

## Hasteko...



**04** Gure natura ezagutu eta disfrutatu ahal izateko *Ibilbide Biologikoak*

**10** Elkarrizketa

Unai Lobo, musikaria. *Betagarri* taldeko kideak proiektu berri bat dauka

## Hemen eta orain



**06** I Berdintasun Jardunaldien balantzea



**12** Eguneko Arretarako Landa Zentroko kolaborazioa

Familia Topaketa



**08** Arabako Odol Emaileen Elkartearen bisita

Urtarrilaren 13an Bengolarrako aparkalekuan



**13** ZIGOITIARRAK, Isidro Saenz de Urturiren eskutik

'Iratze kargamentuan kamuflatutako txerria'

## Liburutegitik, maitasunez



**09** Made in Zigoitia

*Oketa Alai Dantza Taldea.* Zigoitian, dantzarako aire berriak



**14** Javier Arbuluren kolaborazioa

*Kartelen pisuaz*

## Staff

**HAMAZAZPI.** Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2016ko negua

**Azala:** Txapelparty Lehiaketako irudi bat. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

**Koordinazioa eta erredakzioa:** Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

**Diseinua eta maketazioa:** Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

**Imprimaketa:** Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiauzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:** [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](http://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria)



Herri batzuetara sartzeko, 945 28 50 00 telefonoan aldez aurretik eskatzea beharrezkoa izango da

## Vitoria-Gasteiz/Zigoitia 1 Linearen ordutegi eta geralekuen aldaketak

Pasa den azaroaren 28tik herri arteko garraioan aldaketa batzuk izan dira, gure udalerrian eragina dutenak (ikus 16. orrialdeko koadroa). Kontuan hartu behar dira ordutegi berriak eta pasatzeko ordu bat agertzen ez den herrietan (asteriskoa, \*, agertzen da bere orde), autobusa ez da geldituko lehenago eskatu ez bada. Herri horietan Hurbiltze zerbitzua eskainiko da, ondorengo moduan:

**Zigoititik Gasteizera:**

- Autobusa hartu nahi duten Zestafe, Okoizta, Murga eta Buruagako herritarrek enpresarekin harremanetan jarri beharko dute ALDEZ AURRETIK. Enpresara inork deitzen ez badu, autobusa EZ da sartuko herrira, lehenago beste herri batera asteriskoko (\*) norakoarekin billetea erosi izan ezik.

- Gainontzeko herrietan autobusa geldituko da adierazitako pasatze orduetan inguruan.

**Gasteiztik Zigoitira:**

- Gasteizen asterisko (\*) duen edozein herrirako norako billetea erosterakoan, autobusa sartuko eta geldituko da herri horretan. Baina inork erosi ez badu billetea, autobusa EZ da sartuko herrira.  
- Apodaka, Berrikano edo asterisko (\*) duen beste herri batetik atera behar izanez gero, enpresarekin harremanetan jarri beharko da ALDEZ AURRETIK.

Enpresa emakidadunarekin harremanetan jartzeko, Autobuses Hermanos Arriaga S.A., Hurbiltze zerbitzua eskatzeko, autobusa hartu nahi den egunaren bezperan deitu behar da **945 28 50 00** telefono zenbakira, hurrengo ordutegian: 9:00etatik 14:00etara edo 16:00tik 19:30etara.



## Gure natura ezagutu eta disfrutatu ahal izateko Ibilbide Biologikoak

Proiektuak bizimodu aktiboagoa eta osasungarriagoa bultzatzea ere badu helburu



Zigoitiak altxor bat dauka: ingurune natural pribilegiatua, herritar guztien ondarea dena, hain zuzen ere. Bere 102 kilometro karratuetan, 17 herri gunetan banatuta, gure udalerrria aberatsa da mendietan, ibaietan, basoetan... eta biodibertsitate itzela dute, gainera. Hala ere, askorentzat erabat ezezagunak dira.

Egoera hori konpontzeko, Zigoitiko *Ibilbide Biologikoak* seinaleztatzeko eta ezagutarazteko proiektu bat jarri du martxan Udalak. Edertasun handiko eta ingurumen balio altuko ibilbideak dira; seinaleztatu eta zailtasun ezberdineko bideetan erregistratzen direnak. Proiektuaren helburua bikoitza da: batetik herritarrek gure ondare naturalarekin ohitzea, ezagutu eta goza dezaten; bestetik, jarduera fisikoaren praktika bultzatzea, ohitura bihurtzea, eta horrela bizimodu aktiboagoa eta osasungarriagoa egiten laguntzea.

Momentuz, lehenengo ibilbidea diseinatu da jada: Lisarandako larretik pasatzen den ibilbide

zirkularra. Bidea erraz identifikatzeko, logotipo batek (igel baten marrazkiarekin) seinaleztatzen du eta jarraituz gero, Gorbeia mendigunean nagusi diren ekosistemez eta berezko paisaiez disfrutatu ahalko ditugu.

Arreta jartzen badugu eta zorte pixka bat badaukagu, *Sugandila bizierrulea* eta *Apo emagina* bezalako espezie berezi batzuk ikusi ahalko ditugu. Bide batez, animalia horiek beste udal proiektu batzuetako protagonistak ere badira, esate baterako narrastiak ikasteko eta babesteko eraiki den urmaelekoa, *Aranzadi Zientzia Elkartearen* lankidetzarekin aurrera eramaten ari dena.

### Interpretazioko mahaiak

Lisarandako ibilbidearekin jarraituz, ibilbidean zehar interpretazioko mahaiak jarri dira, proiektuaren eta ingurunearen gaineko informazioarekin. Gainera, laster diseinatu eta banatuko dira ibilbideen oinarriko datuekin eta haiez gozatzeko mezuekin egindako liburuxka batzuk. Asmoa da herritarrek Ibilbide biologikoak ezagutzera animatzea. Testuek jasotzen dituzten bitxikerien artean hau irakur dezakegu: 'larrea basoz inguratutako uharte bat da, bere existentzia abereen mendean dagoena.

Putzuz betetako bazketan eta txilardietan, batetik bestera lasterka dabil *Sugandila bizierrulea*. Edota 'Igotzen den neurrian, hariztia pagadiak menderatzen bukatzen du. Uda gauean *Apo emaginaren* txirula-antzeko kantua pago baten ondoan entzuten da. Ura ez da urrun egongo'.



### Zubialde-Lisaranda-Zubialde ibilbidea

*Ibilbide biologikoa* berde koloreko igel baten logoarekin balizatuta dago

**5,5 kilometroko ibilbide zirkularra**  
**Desnibela:** 170 m.



#### Deskribapena:

Muruako Harrobietako hondoko aparkalekutik hasten dugu paseoa, Zubialde ibaiko lehenengo pasabidea gurutzatu ondoren. Bide nagusia hartzen dugu, ibaiko ubidea leunki igoz. Hirugarren pasabidea zeharkatzerakoan, ezker aldean uzten dugu Zubialde erreka. Bide nagusiko balizak jarraitzen ditugu eta, geroxeago, Letonakortako ingurua ezker aldean uzten dugu. Minutu gutxi barru, Lisarandako larrea hasten gara inguratzen. Bidean, Austerritza inguruan, txabola bat aurkitzen dugu ("Lisarandakoa" bezala ezagutzen dena). Ondotik pasatzen dugu eta bide nagusitik igotzen gara. Pagadian sartzen gara eta, handik gutxira, oraindik ere aldapa gora, eskuineko bidexka hartzen dugu, konifero-basoberritzedun bi itxituraren artean pasatzen dena eta larre batera eramaten gaituena.



Belarratik igotzen gara, aurrerago, berriro pagoen artean, Umaranen azpialdean ibiliz. Ibilbidearen altuera handieneko puntua da hau. Leunki jaisten hasten gara eta eskuinera bira zakarra egin ondoren (90 gradukoa baino gehiagokoa), lerro zuzenean jaisten gara alambre itxitura aurkitu arte. Eskuinaldera inguratzen dugu bide zabala hartzeko. Barguntzatik jaisten gara hirugarren pasabideko zelaira ailegatu arte. Puntu horretan ezker aldean biratu besterik ez dugu egin behar, aparkalekura itzultzeko.



Ekintza arrakastatsuen artean, Gaztelekuko neskek egindako bideoa

## I Berdintasun Jardunaldien balantzea



Aurten, lehenengo aldiz, Zigoitiko Udalak foro bat antolatu du emakume eta gizonen arteko eskubideen berdintasunaz eta beraien arteko aukeren berdintasunaz hitz egiteko. Udaleko Berdintasun sailak bultzatutako ekimena pasa den urrian egin zen eta hilabete horretan hainbat hitzaldi, antzerki, bideo-forum, dokumental eta argazki erakusketa ekarri zituen Zigoitiko Zentro Soziokulturalera.

Besteak beste, Marina Sagastizabal aditua Ekonomia Feministaz aritu zen, berez zer den eta gure gizartean duen garrantzia azalduz. *Bring the sun Home* dokumentalean ikusi ahal izan genuen nola Indiako ekimen bati esker, mundu osoko baliabiderik gabeko emakumezkoek eguzki panelak jartzen ikasi zuten, beraiantzat eta bere komunitateentzat aukera bat lortuz. *Piper Txuriak* taldeak, argazki erakusketa baten bidez, planteatu zuen nola doazen gizonak gaur egun berdintasunerantz eta nola egiten dieten aurre maskulinitate berriei. Euskal Fondoaren eskutik ekarri ahal izan zen *Afganistango Emakumeak* erakusketa, Gervasio Sanchezen, gerra korrespontsal eta Espainiako Argazkilaritza Saridunaren, argazkiekin eta Monica Bernaberen, gerra korrespontsal eta kazetariaren, testuekin. Eta *Gizon berrien kontaketa* filmaren bidez, adin, jatorri eta kultura ezberdinetako 70 gizonen testigantza ezagutzeko aukera izan genuen eta, geroxeago, entzundakoaz eztabaidatzeko.

### Gaztelekuko nesken bideoa

Jardunaldietako programaren barruan tokiko ikus-entzunezko ekoizpen baterako tokia ere egon zen. Toki berezia izan zuen eta, gainera, publikoak gehien goraipatu zuen ekimenetako bat izan zen.

Udaleko Berdintasun sailak eta Berdintasun lan taldeak bultzatuta, Gaztelekuko gazteei bideo bat egiteko proposamena egin zitzaion. Gaia zen emakumezkoen papera nola aldatu den denborarekin, eta Zigoitiko herritarrak elkarriketatu behar zituzten. Azkenean neskek bakarrik hartu zuten parte eta oso ariketa interesgarria atera zen. Izan ere, oso une dibertigarriak bildu zituzten, batez ere pertsona helduek gogoratzen zutenean 'nola ligatzen zen Garciako larrinean, dantzaldian; nola gaizki ikusita zegoen emakume bat gizon batengana joatea... Helduen komentarioen aurrean neskatoen aurpegia ikustea show bat zen', kontatu digu ikusle batek. Bide batez, hemendik eskerrak luzatu nahi dizkiegu bideoa egin zuten neskei eta elkarriketatu zituzten pertsona guztiei.

### Balantze positiboa

Balantzeari dagokionez, udal arduradunen ustez positiboena izan da jardunaldiak 'hasiera bat izan direla, izan ere, jarraipena behar duen gai bat da, eta interesa duten pertsona guztiak nahastu nahi ditugu. Aipagarria da jardunaldietan parte hartu zuten bi emakumek, izena eman dutela urte hasieratik daukagun lan talde egonkorrean aritzeko'. Aldi berean, aitortzen dute parte hartzea ezberdina gorabeheratsua izan dela. Jende dezente ikusi ditu argazki erakusketak, baina gainontzeko ekintzetan parte hartze txikiagoa izan da. Hala ere, eztabaida oso interesgarriak eta probetxu handikoak izan dira, eta balio izan dute, besteak beste, agerian uzteko oraindik ere jarrera matxistak oso barneratuta dauzkagula, baita hasiera batean kontzientziatuago dagoen jendearen artean ere. Aintzat hartzen dugu, batez ere, lehenengo jardunaldiak izan direla, beharrezkoak direla eta aurrera jarraituko dugula. Finkatu egin nahi ditugu, lan-dinamika eta elkargune bezala. Eta uste dugu gure udalerrian gauzatzen ditugun aurrerapenak eta gogoetak hedatzeko tresna ere izan behar direla.



Virginia Imaz klownaren emanaldia.

## Kuadrillako Berdintasun teknikari berria

Gorbeialdeko Kuadrillak, Arabako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoaren lankidetzarekin, Berdintasun teknikari bat kontratu berri du. Teknikariaren eginkizunak izango dira, besteak beste, ekintza positiboko neurriak taxutu eta sustatzea; Udalen eta Kuadrillaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko bultzada ematea; udaletako eta kuadrillako langileentzako nahiz herritarrentzako sentsibilizazio eta prestakuntza jarduerak taxutzea; eta bereizkeria egoerak detektatzea eta egoera horiek deuseztatzea neurriak taxutzea eta sustatzea.

Informazio gehiago: T\_945 43 01 67



## Arabako Odol Emaileen Elkartearen bisita

Edozein pertsona osasuntsuk, adinez nagusia bada, eman dezake. Bihar, zuk izan dezakezu beharra...



Odola zaharkitu egiten da; plaketak 5 egunetan eta hematieak (globulu gorriak) 42 egunetan. Odola ezin da egin, ezta izoztu ere. Nola gero eta luzeago bizi garen, bizitzan zehar odol gehiago behar dugu (azken hamarkadetan transfusio kopurua handitu da banaketak, tratamenduak eta abar egiteko). Euskadik egunero 500 odol-emate behar ditu, gure komunitatearen ospitaleko beharrak asetzeko. Horregatik guztiagatik, odol-emaileak behar dira. Gainera, gaur egun daudenak adin ertaineko pertsonak dira gehienbat. Beraz, emaile gazteak ere behar dira. Horrela, Zigoitiko Udalaren ekimenez, datorren urtarrilaren 13an, ostiralean, Transfusio eta Giza-Ehunen Euskal Zentroko Unitate Mugikorra udaletxeko aparkalekura etorriko da. Arratsalde guztia emango du hor, 16:30etik 20:15era arte, odola eman nahi duten zigoitiar guztiek erraz egiteko aukera izan dezaten.

### Erraza da. Eta ez du minik ematen!

Hasiera batean edozein pertsona osasuntsuk, 18 urtetik 70rainokoak, eman dezake odola.

Botikak hartzen baldin baditu, hoberena da osasun-taldeari galdetzea, dohaintzaren unean bertan. Infekzioen bat izanez gero, ezin da odolik eman.

Segurtasun osoz egiteko, erauzte bakoitza baino lehen kontrol mediko bat egiten da. Izan ere, Arabako Odol Emaileen Elkartearen koordinatzaileak, Isabel Viloriak, azaltzen duen moduan, 'giro atsegina eta animatua dago. Musika entzun dezakezu, bideoak ikusi edo hitz egin beste pertsona emaile batzuekin edo osasun-taldekoekin. Inoiz egin ez baduzu, egin proba eta eman ezazu behin. Seguru ohartzaren zarela ez dela uste duzun bestekoa".

Dohaintza bakoitzarekin 3 pertsonari lagun diezaiekezu; plasma, plaketak eta hematieak jasoko dituzte.

Odola ematea ekintza solidarioa da: soberan daukazun zerbait ematea, osasuna berreskuratzeko edo bizitza ez galtzeko beste pertsona batzuek behar duten zerbait ematea. Eta hori guztia gutxi izango balitz, agian bihar zuk izan zenezake odolaren beharra.

## OKETA ALAI DANTZA TALDEA

## Zigoitian, dantzarako aire berriak



Talde honetan dantzariak aurkitzen ditugu, bai. Baina ez bakarrik. Dantzarien gurasoak eta adin eta mota ezberdinetako dantzazaleak ere bai. Eta gure folklorea hedatuz ondo pasatzeko gogo handia ere bai. *Oketa Alai Dantza Taldeak* lanean urte asko daramatzen jendea biltzen du, dantzak Zigoitiko eszena kulturean bere lekua izateko helburuarekin. Plazara atera nahi dute, gure herrietara. Eta baietz lortu, aire, airez kargatuta datoz eta!

### - Noiz jaio da OKETA ALAI DANTZA TALDEA?

Data jarri behar bada, esango dugu 2016ko abuztuaren. Baina 30 urte baino gehiago ditu proiektuak. *Kirol, Kultura eta Jolaserako Oketa Elkarte*an du jatorria eta *Dominizubi* agertu zenean, 2008an, azken honetako parte bihurtu zen. Orain, aurrera pausu bat emateko ordua dela pentsatu dugu, Zigoitian dantzek protagonismo gehiago izan dezaten eta gure eszena kulturean ageriago egon daitezten. Hori dela eta, talde independente bezala aurkeztu gara.

### - Zenbat zarete elkartean?

Maila ezberdinetako 5 talde ditugu, horien artean hastapeneko bi, aurten sortutakoak eta 24 lagunekin. Guztira, 50 dantzari gara, guztiak federatuta eta Zigoitiari lotuta. Gainera, txikienak dantzetara ekarri nahi ditugu. Aurten presaka ibili gara, ez dugu zorte handirik izan eta, nahiz eta ikastolako familia guztiei gutun bat bidali, ezin izan dugu txikien talde bat sortu. Baina datorren urtean saiatuko gara berriz.

### - Nork har dezake parte?

Interesa duen edozein pertsonak. Nahiz eta dantzan jakin ez edo dantzazeari utzi izan,

etor zaitez, parte hartu eta taldea lagundu. Jendea behar dugu dantzak entsegu lokaletik atera nahi ditugulako kaleetara, herrietara eramateko. Hemen zaletasun handia dagoela badakigu eta, oraindik ere, areagotu egin nahi dugu. Gure funtzionatzeko era oso erraza da, gurasook taldearen kudeaketa eramaten dugu eta irakasleak gai tekniko guztiak.

### - Non ikusiko zaituztegu dantzan?

Ostiralean eta larunbatetan entseatzen dugu eta dantza egiten dugu Dantza Plazan, Zigoitiko edozein jaietan, Mairun, Zigoitia Euskararen... Izan ere, goi-mailako neskek Euskal Herri osoko erakustaldi eta lehiaketetan hartzen dute parte. Gasteizen egon berri gara, abenduaren 17an, *Arabako Arin Arin eta Fandango txapelketan*.

### - Duzuen erronkarik?

Zigoitiko festetan eta kulturaren dantzak funtsezko erreferenteak izatea. Eta 2017rako dauzkagun proiekturen batzuk martxan jarri nahi genuke. Kontatuko dizuegu.

### Info gehiagorako:

oketaalaidantza@hotmail.com



Unai Lobo, musikaria

## 'Egun, entretenimendua kulturari gailendu zaio'



Unai Lobo. Argazkia: Guillermo Urkijo\_indigitaline



Miss Palencia, Unairen proiektu berria.

Jaiotzez Gasteiztarra da, baina 2005ean gurera etorri zen bizitzera. Hasieran Ondategira eta 2010ean Etxabarrira. Honek, 'nahiz eta Zigoitiko biztanle kopururik handiena eduki, ezin dezakegu esan herriko bizitza handia duenik. Uste dut hemen bizi den nahikotxo jendek Gasteizko urbanizazio baten moduan hartzen duela, lo egitera dator eta ezer gutxi gehiago. Niretzat nahiko tristea, baina tira, zer egingo diogu! Ni oso gustura nago biltzen garen jende multzoarekin', dio musikariak. Bere profil publikoari dagokionez, bizitza erdia eman du *Betagarri* taldean, Iñaki Ortiz de Villalba (abotsa), Iker Uriarte (bateria), losu Izagirre (baxua), Aitor Aguirre (gitarra), David Gaviña (saxoa) eta Mikel Sanzekin (tronboia). laz taldea gelditzea erabaki zuten baina horrek ez du esan nahi Unai musika alde batera utzi duenik. Kontrakoa. Miss Palencia proiektua jarri du martxan.

### - Nola hasi zinen musika munduan?

Institutuan nabilela, 16 urterekin, lagun batzuek beren txaranga sartzeko animatu ninduten eta hara joan nintzen saxofoia jotzeko intentzioarekin. Sartu bai, baina tronpeta esleitu zidaten. Handik gutxira, urte t'erdira edo, txarangaekin Gasteizko Alde Zaharretik jotzen genbiltzala, sortzen ari ziren talde berri batean ea jo nahi nuen galdetu zidan tipo batek (Iñaki) eta baietz esan nion. Entseatzeko geratu ginen eta saxojole bat eramango nuela esan nion. Hori 1993 urteko neguan izan zen. Horrela hasi zen *Betagarri*.

- **Bide batez, zer ikasi zenuen?** Oso berandu hasi nintzen jotzen eta urte gutxi batzuk eman ditut solfeo eta tronpeta ikasten. Ikasketak Koldo Mitxelena institutuan egin nituen U.B.I.rarte, baina ez nuen aprobata. Geroxeago Unibertsitatean sartzeko azterketa egin nuen, 25 urtetik gorakoentzat, eta Historia ikasten hasi nintzen, baina utzi nuen.

- **Musikan egin duzu karrera. Betagarri ospe handiko taldean aritu ondoren, musika egitetik bizi zara?** Ez, ez gara musika egitetik bizi. laz arte, 11 urtez, kontzertuak antolatzen eta musikaren inguruko hainbat lan burutzen zituen enpresa bat nuen, beste bi bazkiderekin, *Le Klip Management*. Baina iazko abenduan itxi genuen. Une honetan Gasteizko aireportuan egiten dut lan, DHL enpresan.

### - Atzera begira, 12 diskoren ondoren, 1.000 kontzertu eskaini eta gero, zein da balantzea?

1993. urtean sortu zela kontuan izanda, ia 24 urte pasatu dira. Bizitza erdia baino gehiago eta balantzea, nola ez, oso oso positiboa.

- **Zer izan da hoberena? Eta txarrena?** Hoberena bidaiatzea eta leku ezberdinetan lagunak egin izana. Baina bai *Betagarriekin* bai txaranga aritzen nintzenez. Mundu erdia ezagutu dut jotzen eta ziurrenik hori egiteko aukerarik ez nuen izango taldean aritu gabe. Txarrena, agian asko jotzen duzunean oso polita

den zeozer, jotzean, ohiko gauza bihurtzen dela eta perspektiba galdu dezakezula, zeozer arrunta bihurtuz.

### - Urteak pasa ahala, jotzeko gogo kentzen da?

Esan bezala, horrek arrisku handia dauka. Kontu handia izan behar da arruntasunaren poderioz gogorik ez galtzeko. Alde horretatik, guk hor akats bat izan dugula uste dut, 22 urte gelditu gabe jotzen egon gara, ia-ia agertokitik jaitzi gabe, eta uste dut noizean behin gelditu behar dela gogo horiek kargatzeko.

### - Betagarriren zuzeneko emanaldiak mundialak ziren. Bat aukeratu beharko bazenu, zein litzateke?

Oso berezia izan zen Japonian eman genuen lehenengo kontzertua, 2002an edo, Kawasakin, Tokio alboan. Jotzen egon eta japoniarrak ikusi hor behean dantzatzen eta nire buruari galdetzen nion: ze hostias egiten dugu hemen? Benetan gertatzen ari da? Honaino heldu gara?

- **Nola dago orain taldea?** 2015eko udan, hainbat arrazoi ezberdinagatik, urte horren bukaeran geldituko genuela erabaki genuen. Harrezkero ezer gutxi egin dugu. Ez dugu proiektu berririk esku artean. Bakoitzak bere ideiak, letrak... landuko ditu eta noizbait berriro bildu eta ea disko berri bat egin eta bueltatzen garen ikusi edo zer egingo dugun erabaki beharko dugu.

- **Bitartean, Miss Palencia sortu duzu. Berez, zer da?** Nik konposatu eta idatzitako hainbat abesti, azkenean nik ere abestu ditudanak, eta Betagarriko hainbat taldekideren laguntzarekin, Triku, Aitor Aguirre, Iker Uriarte eta losu Izagirrekin, grabatu ditudanak.

- **2 taldeek ez dute zerikusirik. Eskizofreniaren seinale ala sormenaren gainezkatzea?** *Miss Palencia*rekin ez dugu inoiz zuzenean jo eta ez dakit noizbait egingo dugun, beraz, ez dago arazorik. Abestiak grabatu genituen eta listo, hor daude.

- **Bukatzeo, nola ikusten duzu daukagun kultura maila?** Uff! Hori sakonean hitz egiteko gai bat da. Orokorrean esango nuke egun

entretanimendua edo aisialdia kulturari gailendu zaiola. Bi kontzeptu horien artean nahaste-borraste handi bat dago eta entretenimendua ateratzen da garaile beti. Gehien saltzen diren diskoak, liburuak, gehien ikusten diren telebista saioak, zinema filmak... dudarik gabe txarrenek dira. Baina zer da hobeagoa, norbaitek ezer ez irakurtzea edo *Millenium* trilogia eta halakoak irakurtzea? Askotan entzuten dugu merezi dugun kultura jasotzen dugula, baina ni ez nago ados. Kontzienteki, eskaini nahi diguten zaborra eskaintzen digute, jendea entretenitua izateko, baina ez jakitun.

### - Zentzu horretan, zerbait esango zenieke Zigoitiko arduradunei?

Uste dut esfortzu garrantzitsuak egiten direla bai udaletik bai beste elkarte ezberdinetatik Zigoitian, kultura mailan, eskaintza duinak egon daitezken. Gero emaitzak, jendearen erantzuna, hobeak edo txarragoak izan daitezke, baina horretarako ez dago errezeta magikorik, lan egiten jarraitzea. Eta gero, orokorrean, oso oso garrantzitsua ikusten dut haurrengan jakin-mina sortzen (edo mantentzen, hobe esanda) saiatzea. Jakiteko gogo daukazunean, gauza berriak ikasi eta ezagutzeko gogo duzunean, beste guztia erraz dator, bai kulturaz hitz egiten edo beste edozein arlotan. Ez bakarrik denbora pasa, gauza berriak ikasi, aurkitu...

### Galdera deserosoa:

- **Tronpetari eta abeslari izateaz gain, letrak ere idazten dituzu. Zer iruditu zaizu Bob Dylanen Nobel Saria?** Bai, niri asko gustatzen zait idaztea letrak edo dena delakoa. Bob Dylanen sariari dagokionez, kantu-idazle bati ematea zilegi iruditzen zait, horrek abestiak idaztea poesia idaztearen mailan jartzen duelako. Dylanek berak merezi duen edo ez, ideiarik ez; ez dut ingeles maila nahikoa bere letra bakar bat ere epaitzeko.

- **Zein da beti espero duzun eta inoiz egiten ez dizuten galdera?** Patata tortilla tipularekin edo tipularik gabe?

- **Erantzuna?** Tipularekin.



## Antzerkiz betetako arratsalde bat, familiarekin



Azaroaren 4an egin zen Familia Topaketa. Urteroko hitzordua da eta, azken honetan, 60 lagun inguru bildu ginen. Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroan egon ziren, besteak beste, ZEALZaren arduraduna, Estibaliz Bolinaga; Arabako Foru Aldundiko Hurbiltasun Zerbitzuaren arduraduna, Loli Lasurtegui; eta Esther Aizpuru, Zigoitiko zinegotzia.

Zentroko erabiltzaileek izan zuten arduraren topaketan parte hartzera etorri ziren guztiei ongietorria emateko, beren presentzia eskertzeko. Ekintza nagusia *Titania Teatro* konpainiak antzetzutako 'Amona Gerrazaleak' obra izan zen. Komediak, 'Bideart' programaren barruan dagoena, *Panta Rhei* taldearen zuzendaritzapean, barre asko eragin zituen publikoan. Antzerkiaren ondoren, topaketari amaiera emateko, kafe bat eskaini zieten parte hartzaileei. Dastatu zituzten pasta, kausera eta bizkotxoak Landa Zentroko erabiltzaileek gozogintza lantegian egin zituzten, hain zuzen ere.

Familia Topaketa ZEALZeko ohiko programaren parte da eta funtsezko helburu bat du: guztiontzako gozameneko espazioa eskaintzea. 2016ko bilera oso entretenigarria izan zen, eta oso tarte dibertigarria eta atsegina

partekatze aukera eman zuen. Gainera, zentroko pertsona nagusiak arratsaldeko protagonistak izaten lagundu zuen, giro hurbil eta xume batean.

### Zentro arteko Gabonetako Topaketa

Abenduaren erdian ZEALZeko egutegian markatutako beste hitzordu bat dago. Zentro arteko Gabonetako Topaketa da, Zuia, Zigoitia, Dulantzi, Okako Iruña, Agurain eta Araiako Eguneko Arretarako Landa Zentroek parte hartzen duten festa eguna. Aurtengoa pasa den abenduaren 16an, ostiralean, egin zen, Murgian. Urtero, txandaka, zentro bat bisitatzen da, herrian zehar paseo bat egiten da, gero bazkaria eta, bukatzeko, umore, musika edo magia ikuskizuna eskaintzen da. Eta, batez ere, beste udalerrietako lagunekin elkartzeko aukera izaten da. Eta baita elkarri jai zorionsuak opatzeko ere.

## Iratze kargamentuan kamuflatutako txerria




Muruako herritarrak baserriko txerri-hilketa batean. Argazkia: **Isidro Saenz de Urturi**.

Denbora luzean zehar, Zigoitiko herriak Gasteizeko hiltegirako iratze-hornitzaile nagusiak izan ziren. Eta joan den mendearan hasieran pasadizo bitxi bat gertatu zen. Iraitetik urtarrilera arte Gorbeia zonaldeko zigoitiarrak iratze orga asko jaisten zituzten hiltegira, garai horretan Gasteizko Alde Zaharreko Korreria kalean zegoena, hain zuzen ere. Pezeta batzuk ateratzeko modu bat zen, hil baino lehen txerriei ileak erretzeko behar ziren eta.

Behin batean, animaliak hazten eta hiriburuan saltzen zituen Muruako herritar batek, 'depuertas' zergaren ordainketa saihestu

nahian, txerria armazoi baten barruan jarri, gurdira igo eta iratzez estali zuen. Kanpotik ez zen ezer nabaritzen eta Gasteizko sarrera pasatu zuen, eragozpen barik, 'depuertas' iratzeen tasa arrunta, txikiena zena, ordainduta.

Korreria kaleko hiltegira iritsi zenean, iratze kargaren prezioa negoziatu zuen aberehiltzaileekin. Horiek, gurdia hustean txerria aurkitu zuten eta, birritan pentsatu gabe, konfiskatu egin zitoten animalia. Karga osoa erosi ziotela eta abeltzainak txerria ez zuela aitortu argudiatu zuten. Horrela, txerria banatu zuten haien artean, dohainik, muruarraren kontura.



### ISIDRO SAENZ DE URTURI

'Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarrizketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zuten bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek.'

Isidro Saenz de Urturik diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea dugu. Udalerrian egin duen lanari esker, hemen *Zigoitiarrak* saila sinatzen du, intentzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeak, familia arteko bazkalondoko elkarrizketa piztea.



## Kartelen pisuaz

Rimbaudek Zigoitiko liburutegia maite zuen. Eta artikulu honetan zergatia aurkituko duzu

Testu eta argazkien hautaketa: **Javier Arbulu.**

Irakurle maiteok, Rimbaud basati txikiak esan ohi zuen: 'Maite nituen pintura txepelak, apaindutako ateburuak, trapezista-oihalak, enblemak, irudi herrikoiak; modaz pasatako literatura, elizako latina, ortografiarik gabeko liburu erotikoak, gure amonen eleberriak, maitagarrien ipuinak, haurren liburuxkak, opera zaharrak, lelo inozoak, erritmo inuzenteak'. Laburbilduz, Rimbaudek Zigoitiko liburutegia maite zuen.

Nik maite dut Rimbaud. Era berean, Hrabal-en 'Bakardade Zaratatsuegia' maite dut eta eta Gonçalo Tavares-en 'Indiarako bidaia' ere maite dut. Horiek guztiak badakite aprobetxatzen gizarte hain higieniko eta aseptiko honek baztertzen duen guztia. Gauza ergel guztiak maite ditut, umeek bezala. Inozotasunaren eta alferkeriaren arimak lilurutzen nau. Inozotasunaren eta alferkeria ganora handiko gauzak dira niretzat. Arima handi, pletoriko eta desafiatazalea dute, sailkaezina den arima. Baina hain azkarrak gara gu, hain zenbakietakoak, kontuetakoak eta balantzeetakoak, ezen itsututa gauden, gauza horien guztien edertasunaren aurrean.

Ez pentsa! Guk ere badakigu ondo lan egiten. Gure kontuak garbi gelditzen dira amaieran. Hala ere, gure lanean gehien maite dudana ez da nire 'etekina', baizik eta karteletan agertzen ez den guzti hori, iragarri ezin dena, ikuskizunetik ihes egiten duen guztia eta neurtu edo pisatu ezin den guztia.

Silaba batzuk telegrafiatzen hasten diren umeak irakurtzen ikustea maite dut. Hitzaz asmatzen duten umeak, ikur horiek ezkututzen duten ideia asmatzeak, ustekabeen harrapatzen nau oraindik ere.

Lan eske etortzen zaizkidan nire *laguntzaileak* maite ditut. Bakarrik nola irakurtzen duten ikustea atsegin dut, batzuetan lasaitasunez, beste batzuetan bizitasun handiz, beren mundu liluragarrian zundaketa-lanetan.

Nire geografia, nire matematikak, nire poesia eta nire pazientzia birpatsatzen behartzen nauten gogaikarri horiek maite ditut, bizitzak



Arthur Rimbaud.

zeharkatzen dituelako eta, zorionez, ez dago geografiarik, ez matematikarik, ez poesiarik, ez pazientziarik, eusteko gai denik.

Nerabeak, ostiral arratsaldetan, lurrean luze eta zabal, komiki bat eskuartean ikustea maite dut. Elkarrekin eta, aldi berean, banatuta. Uharte hurbilak sakontasun latzetan ainguratuta. Beren sakontasunek, ezberdinak eta antzekoak direnak, toki komuna partekatzen dute.

Hitz hauek idaztea maite dut. Hitz hauek idazten ditudan bitartean Jeff Buckley entzutea maite dut. Ematen digun intentsitatea. Osoki bizitako bizitza bat posible denaren promesa.

Mutil zurbilarengan badago, eta hemen dauzkagun besteegileaskorengan ere bai: Müller, Antunes, Kristoff, Ducharmé, Larcenet, Etxarte. Maite dut bere etxeko lorategian zulo sakon bat aitzurtzen ari dela niri esatera datorren mutila. Maite dut euskaraz daukagun poesia guztia pixkanaka pixkanaka irakurtzen doan gizona eta maite dut Zigoitiko liburutegia osorik irakurtzen ari den gizona. Maite dut gehiago eta gehiago eskatzea.

Maite dut nola, umea zenean, hiltorian zegoen bere aitari etxerako habe nagusi berri baten bila



lagundu ziola kontatzen didan agurea.

Maite dut liburutegiko *agente libre* bihurtzen den mutikoa, bere ikasgelako ikaskideei komikiak gomendatuz.


Helduen artean gauza bera egiten duen gizona maite dut. Maite dut elkarrekin irakurri genuen Cernudaren poema. Maite dut bere andrearen aitoren iragana miatzeko liburuen bila etortzen den gizona, Gursetik Mathaussenerako bidaia beldurgarrian desagertu ziren zerrenda amaiezinen artean.

Maite dut liburuak espexera eramaten dituen emakumea, zerrendatik liburuak marratzen dituen horma batean egunak marratzen diren bezala.

Maite dut, egunero, gauzak ondo daudela esatera etortzen den emakumea. Hemen gertatzen dena gustuko duela esaten didana. Ahoa ireki gabe esaten dit.

Maite ditut haur-oinetakoak ekartzera, koadro bat esekitzera, beren ametsetara eraman zituzten liburuak dohaintzan ematera etortzen diren guztiak.

Maite ditut *Kontatuko didazu ipuin bat?* ekintzako boluntarioak (batez ere, ustekabeak). Orduan, galdetzen dizuet: zein kartelek jasan dezake horrenbeste pisu? Ez dakit nik. Baina egia da noizbehinka horrelako karteletan pentsatu behar dudala.



Jeff Buckley. The Estate of David Gahr/Getty Images.



## Valentina Basabe, 2016ko Artzain Egunean omenduta

Irailaren 18an, igandez, egin zen Amurrion aurtengo Artzain Eguna, eta Arabako 4 artzain omendu zituzten bertan. Horien artean, Valentina Basabe, San Pedroko Baserrietako gure bizilaguna. Bere senarrarekin, Maximo

Alavarekin, bitzta osoa ardiak hazten eman du. Gaur ere bere alabei laguntzen die baserrian, eta ez da arraroa, baserrian bertan, amamarentzat harrotzeko aitzakia diren biloba bi, korrika ikustea. Zorionak, Valentina!

### Autobusen ordutegiak

#### 1 ZIGOITIA – VITORIA- GASTEIZ

ZESTAFE	OKOIZTA/ACOSTA	ETXAGUEN	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERIBE	BURUAGA	BERRIKANO	APODAKA	ETXABARRI IBINA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	GASTEIZ/VITORIA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>													
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	14:30	14:33	14:35	*	14:38	14:41	*	14:44	14:48	14:55	14:57	15:06
*	*	16:00	16:03	16:05	*	16:08	16:11	*	16:14	16:18	16:25	16:27	16:36
*	*	18:40	18:43	18:45	*	18:48	18:51	*	18:54	18:58	19:05	19:07	19:16
*	*	21:00	21:03	21:05	*	21:08	21:11	*	21:14	21:18	21:25	21:27	21:36
						22:05					22:14	22:16	22:25
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>													
*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36

#### 1 VITORIA- GASTEIZ – ZIGOITIA

GASTEIZ/VITORIA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	ETXABARRI IBINA	APODAKA	BERRIKANO	BURUAGA	ERIBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXAGUEN	OKOIZTA/ACOSTA	ZESTAFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>													
07:35	07:44	07:46	*	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*
13:45	13:54	13:56	*	*	*	*	14:13	*	14:16	14:18	14:21	*	*
15:15	15:24	15:26	*	*	*	*	15:43	*	15:46	15:48	15:51	*	*
18:00	18:09	18:11	*	*	*	*	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*
20:20	20:29	20:31	*	*	*	*	20:48	*	20:51	20:53	20:56	*	*
21:40	21:49	*					22:00		*	*			
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>													
09:10	09:19	09:21	*	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*
12:00	12:09	12:11	*	*	*	*	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*